

Basque Culinary Centerreko Biblioteka, eremu/proiektu aktiboa

2015/09/23

Basque Culinary Centerreko Biblioteka ezagutzaren kudeaketarako proiektu integral, fisiko eta digitala da eta azken hilabeteetan dohaintza garrantzitsuak jaso ditu.

María Canabal kazetari gastronomikoa da, era berean, munduan emakumeek bultzatutako aldaketa bat aldarrikatzen du eta Parabere Forum-aren presidentea da. *Coquilles Saint-Jacques* bere liburuaren aleen dohaintza egin du Gradu eta Masterretako ikasle guztientzako. Gradu 4. mailako ikasleek jadanik bere alea jaso dute. Liburu honek, *Gourmand Cookbooks Awards 2015*etan diseinu hoberearen saria jaso du.

Bestalde, Rafael Azcona gidoilari ezagunaren gastronomiarekin loturiko fondo bibliografikoaren 160 liburu jaso dira, "La gran bouffe" (1973) pelikularen gidoia idazteko orduan inspirazio gisa erabili zituenak.

800 dokumentu baino gehiago dira Juan José Goñiren dohaintza osatzen dutenak, berrikuntzaren arloko gurutzat hartzen da eta berrikuntza sistemetan espezialista da.

Luis Haranburu idazle eta editorearen eskutik, 700 sukaldaritza liburu eta 3000 diapositiba jaso dira.

Zinearen, berrikuntzaren eta letren mundua, BCCko jakintzen kudeaketaren partaide dira orain, bere Liburutegiaren fondoaren parte izanez.



BCC Biblioteka